

## Koloreekin jolasean

Hurrek eta gazteek hartu dute parte Onddok antolatutako marrazki saioetan ▶ 4



Harpidedunei banatua ▶ Osteguna ▶ 2006-03-23 ▶ IV. urtea ▶ 844. zenbakia ▶ [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

# Bi eskualdeetan itxaropena piztu du ETArek su-etenak

**AGIRIA** ▶ Bihartik aurrera ekintza armatuen etenaldi iraunkorra abiatzea erabaki du ETak, «prozesu demokratikoa bultzatzeko»

**ERREAKZIOAK** ▶ «Itxaropentsu» mintzatu dira HITZArekin Tolosaldeko eta Leitzaldeko politikariak, eragileak eta norbanakoak ▶ 2

I. TERRADILLOS



**XABI FERNANDEZ** ▶ BELA

«Pekingo Olinpiar Jokoei begira nago orain»

Volvo Ocean Race Munduko Bira utzi berri du ibartarrak ▶ 6

**BIDEGOIAN** ▶

Aurrera-Saiaz Berria Txapelketatik kanpo ▶ 5

hitza

lagunen  
**txokoa**

▶ HITZAko harpidedunen artean

Tolosako Udalak Martxoaren 8rako ateratako **KAMIXETAK** zozketatuko ditugu.

Lortu zurea!

Zozketan parte hartzeko deitu 943 65 56 95 telefonora (11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 18:00etara).



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

POLITIKA ▶

# Su-etenaren aurrean «itxaropentsu»

Tolosaldeko eta Leitzaldeko politikari, eragile zein norbanakoen iritzia bildu ditu HITZAK

## ERREDAKZIOA

ETAk atzo iragarritako su-eten iraunkorraren harira, bi eskualdeetako alderdi zein eragileen erreakzioak bildu ditu HITZAK. «Itxaropentsu» daude.

## JOKIN BILDARRATZ

EAJ

## «Prozesu itxaropentsu bat ireki da»



«Prozesu itxaropentsua ireki da, luzea izango dena. Hori dela eta, alderdikeriak albo batera utzi eta alderdi eta eragileek arduraz, pazientziat, tolerantziat eta eskuzabaltasunez jardun beharko dugu».

## INAXIO AGIRRE

EZKER ABERTZALEA

## «Orain, beste aldekoen urratsak behar dira»



«Borroka luze baten ondoren albiste pozgarria da. Herriarrok gure nazioari dagozkion eskubideak gauzatzeko aukerak irekitzen dira. Orain Espainiak eta Frantziak maila bereko urratsa eman behar dute».

## ONINTZA LASA

EA

## «Beharrezkoa da alderdi guztien mahaia sortzea»



«Eak denbora luzez egindako lanaren ondorioz ahalbidetu du egoera. Gure ildotik segiko dugu lanean, Euskal Herriko eskubideen alde. Pauso inportantea da. Beharrezkoa da alderdi guztien mahaia osatzea».



Atzo, eguerdi partean, eman zuen su-etenaren berri ETAk.

## OSCAR RENEDO

PSE-EE

## «Lehen pausoa da, armak utzi arte»



«Orain ikusi beharko da su-etena no-raino iristen den. Lehenengo pausoa da, armak behin betiko utzi arte, hori baita eskatzen duguna. Prozesua hasteko lehen pausoa da».

## ANTTON CARRERA

EB

## «Bide irekia azken era eman behar dugu»



«Su-etena betikoa izan behar du. Pauso bat egin da; PSOEk mugitu behar du. Alderdien mahaia osatu behar da herriak erabakitzen duena onartzu, eta akordioa lortu. Bide irekia azken era eman behar dugu».

## IÑIGO MANRIQUE

PP

## «ETAk prozesua gertutik zelatatuko du»

«Kalean sortu diren esperantzak ulertzen ditugu, baina arretaz begiratu behar diogu. Atsekabetu egiten gaitu, ETA ez baita desagertzen, gertutik zelatatuko du prozesua».

## PATXI ZABALETA

ARALAR

## «Bi elkarrizketa mahai jarri behar ditugu abian»

«Guretzat aspaldi itxaroten genuen berri ona heldu da. Alderdiok lehenbailehen bi elkarrizketa mahai (Nafarroan eta EAEn) jarri behar ditugu abian, eta gero Espainiako Gobernua irurriak lehenbailehen har ditzan exijitu».

## MARI MUJICA

LAB

## «Esenatoki bat eraiki ahal izateko ekarpena»

«Ezinbesteko ekarpena suposatzen du erabaki politikoan

eszenatoki bat eraiki ahal izateko. Eta hona heldu gara milaka pertsonen Euskal Herriko eskubideen defentsan eginko lanari esker».

## RAMON IRAZU

ELA

## «Prozesuaren alde egin beharko du estatuak»

«Berri ezin hobea da. Bake eta normalizazio prozesua abian ez jartzeko inolako aitzakiarik ez dauka dagoeneko estatuak. Prozesuaren alde egingo duten urratsak eman beharko ditu orain».

## ENRIQUE TORQUEMADA

CCOO

## «Benetako politikarako garaia heldu da orain»

«Berri oso ona da su-etena. Benetako politikarako ordua heldu da. Euskal gizarteak aspaldi aldarrikatzen zuena zen, eta orain eten hau behin betiko armak uztea izatea nahi dugu bake eszenatokia lortzeko».

## ANTTON IZAGIRRE

NAZIO EZTABAIDAGUNEA

## «Lanean jarraitzeko asmo sendoa dugu»



«Alde batetik, emozioa eta poza, eta bestetik, lanean jarraitzeko asmo sendoa dugu, behingoz Euskal Herriak erabakitzeko eskubidea izan dezan».

## JONAN FERNANDEZ

ELKARRI-KO KOORDINATZALE OHIA

## «Gizarteak prozesu itzulezina egingo du»



«Balorazio positiboa egiten dugu; izan ere, denok espero duguna da. Gizarteak prozesu itzulezina egingo du, aukera eta zailtasun gehiagorekin».

## PEPI GOROSTIDI

ETXERAT-EKO KIDEA

## «Orain ikusiko da bakea nahi den ala ez»

«Pozgarria da: su-etena hor dugu eta orain hasten da benetako lana. Orain ikusiko da bakea nahi den edo ez. Ardura handia dugu denok».

## GARBIÑE BIURRIN

EPAILEA

## «Behingoz etorkizuna irabazi dugula uste dut»



«Alde batetik, gogorra etorri zaizkit bidean galdu ditugun guztiak. Behingoz etorkizuna irabazi dugula uste dut; etorkizun hau itxaropentsu ikusten dut. Orain indarkeria deslejitimaztea da gure eginkizuna».

## ETA-REN AGIRIA ▶

«Euskadi Ta Askatasunaren mezua Euskal Herriari:

Euskadi Ta Askatasunak, 2006ko martxoaren 24tik aurrera ekingo duen etenaldi iraunkorra abiatzea erabaki du. ETArek erabakiaren xedea Euskal Herriaren burutu beharreko prozesu demokratikoa bultzatzea da.

Euskal Herriarentzat marko demokratikoa eraiki behar da,

gure Herri eskubideak aitortuz eta etorkizunari begira aukera politiko guztiak ahalazko eginez.

Prozesu horren buruan, euskal herritarrek beren etorkizunari buruzko hitza eta erabakia izan beharko dute.

Espainia eta Frantziako estatuak, Euskal Herriko eztabaida demokratikoaren emaitzak errespetatzea

dagokie, inolako mugarik gabe. Euskal herritarrok gure etorkizunari buruz erabakiko duguna errespetatu behar dute.

Eragile guztiei, ETAk egindako urratsaren neurri bereko erantzukizunarekin jokatzeko deia egiten diegu.

Espainia eta Frantziako agintariei, egoera berriari erantzun positiboa emateko eta jokabide errepreisiboak

alboratzeko deia luzatzen diegu.

Oro har, euskal herritarrei dei zabala egiten diegu prozesuan buru-belarri murgiltzeko eta gure Herri eskubideen alde borroka egiteko.

ETAren borondatea eta nahia, zabalduko prozesua burura eramatea eta Euskal Herriaren benetako egoera demokratikoa eskuratzea da,

urte luzetako gatazka gaindituz eta justizian oinarrituriko bakea eraikiz.

Aurrerantzean, borondate horren arabera urratsak egiten jarraitzeko konpromisoa berresten dugu.

Gatazkaren konponketa, gaur eta hemen, posible da. Hori da ETAREN nahia.

Euskal Herriaren, 2006ko martxoan.

Euskadi Ta Askatasuna. E.T.A.».

ARRAUNA ▶



Tolosaldeko Arraun Klubeako, Zumaiaiko lasterketan. HITZA

# Tolosaldeko Arraun Klubeko 9 batel lehiatu dira Zumaian

Larunbatean jokatu zen Gipuzkoako ligaxkako bosgarren jardunaldia, eta hurrengo Donibane Loitzunen izango da

**ERREDAKZIOA**

Gipuzkoako batel ligaxkako bosgarren jardunaldia jokatu zen larunbatean, hilak 18, Zumaian. Bertan, Tolosaldeko Arraun Klubeko bederatzita batel aritu ziren lehiatzen. Nahiz eta honek bosgarrena izan behar zuen, jokatu den hirugarrena izango da. Eguraldi txarra dela eta aurreko biak bertan behera geratu baitziren.

Nesketan lau taldek hartu zuten parte txapelketan: infantil-kadete mailan, Aita Mari izan zen garaile. Tolosaldea A, berriz, laugarren postuan geratu zen 05:28,74ko denborarekin, eta Tolosaldea Bkoek jarraitu zieten, 16 segundoko tartarekin. Jubenil-seniorretan, irabazle izateko pauso batera geratu ziren Tolosaldea Akoak, Oriokoak baino hamahiru segundo beranduago iritsi baitziren helmugara. Tolosaldea Bko neskek, berriz, laugarren geratu ziren.

Mutiletan, bost izan ziren lehiatu ziren batelak. Infantiletan, Sanpedrotarra Bkoak izan ziren garaile. Tolosaldekoak seigarren eta hamaikagarren postuetan geratu ziren. Kadeteetan, seigarren geratu ziren Tolosaldeko parte-hartzaile bakarrak. Hauek 07:59,72ko denborarekin, hau da, irabazleak, Oriokoak, baino ia 50 se-

**GIPUZKOAKO KLUBEN BATELEN LIGA ▶**
**SAILKAPEN OROKORRA**
**Infantil-kadete neskek.**

1. Aita Mari
2. P.D. Koxtape A.E.
3. Sanpedrotarra
4. Tolosaldea A
5. Tolosaldea B

**Infantil mutilak.**

1. Orio A.E. A
2. Sanpedrotarra B
3. Hondarribia A
4. Orio A.E. B
5. Tolosaldea
6. Sanpedrotarra A
7. Hondarribia B
8. Hondarribia C
9. Orio A.E. C

**Kadete mutilak.**

1. Orio A.E. A
2. Getaria
3. Aita Mari A.E.
4. Orio A.E. B
5. P.D. Koxtape A
6. Tolosaldea
7. P.D. Koxtape B

**Jubenil-senior neskek**

1. Orio
2. Tolosaldea A
3. Getaria
4. Tolosaldea B
5. Kiriko
6. Sanpedrotarra B
7. Sanpedrotarra A

**Jubenil mutilak.**

1. P.D. Koxtape A.E.
2. Tolosaldea A
3. Sanpedrotarra A
4. Aita Mari A.E.
5. Getaria
6. Orio A.E. A
7. Orio A.E. B
8. Illumbe
9. Ur-joko
10. Tolosaldea B

**Senior mutilak.**

1. P.D. Koxtape
2. Hernani
3. Illumbe
4. Hibaika
5. Fortuna
6. Tolosaldea

gundo beranduago. Jubeniletan, hirugarren postua lortu zuten Tolosaldea Akoek, eta zazpigarrena Bkoek. Senior mutilek ligaxka hasi bazuten ere, bertan behera utzi dute dute txapelketa, eta ez dute lasterketa honetan parte hartu.

Hala ere, Ligako azken estropadetan agian lehiatuko direla jakinarazi dute TAKEkoek.

Hurrengo jardunaldia larunbat honetan jokatuko dute, Donibane-Loitzune inguruko uretan, arratsaldeko 16:00etatik aurrera.

XAKE ▶

## Tolosaldeko eskolarteko ligak badu irabazlea

Aitor Villenak irabazi du asteburu honetan amaitu den Xake Txapelketa

**ERREDAKZIOA**

Aurreko asteburuan Benjamin mailako Tolosaldeko eskolarteko txapelketako azken saioa jokatu da. Hiru igandez jarraian, txapelketak eskolarteko xakelari gazteenak bildu ditu Tolosako Xake Elkartearen. Eskoletan ikasitakoa erakusteko aukera izanda oso gustura amaitu dute denek. Saikapenari begira, Jesusen Bihotzako (Villabona) Aitor Villena izan da txapeladuna. Bigarren Eneko Maiz sailkatu da, ikastetxe berekoa. Samaniegoko (Tolosa) Danel Intxaurrendok osatu du podiuma.

Bestalde, Gipuzkoako talde-



Xake jokalar bat, lanean. HITZA

kako ligan Tolosa-Ibarrako jokalariek bina berdinu zuten liderraren aurka, Donostiako Gros B taldea. Mujikak bi irabazi eta Etxeberrriak berdinu egin zuen.

ARETO FUTBOLA ▶

## 1-1eko emaitzarekin konformatu behar

Berdinketan geratu zen Laskorain eta Elorrioren arteko partidua larunbatean

**ERREDAKZIOA**

Larunbatean Usabalgo polikiroldegira joandako zaletuak Laskorainen eta Elorrioren arteko puntu banaketaren lekuko zuzenak izan ziren, partida gatazkatsu eta lehiatu bat ikusi ahal izan baitzuten.

Elorriokoak, Nazional B mailan lehenengo denboraldia duten arren, urte bikaina osatzen ari dira; dituen jokalarari sendo eta esperientziadunek defentsa indartsu eta deseroso bat lantzeaz gain, taldea sailkapeneko 4. postuan finkatzea lortu dute. Norgehiagokaren garrantzi eta zailtasunak, beraz, ez zituen ezustekoan harrapatu tolosar hauek.

«Tolosaldeko areto futbolaren Paul Newman den Egizabal entrenatzailearen faltan, belaunean min hartuta dagoen Alonso jokalaririk zuzendu zituen ikastolako mutilak, hasieratik defentsa batu eta atzeratu bat planteatuz», azaldu dute. Aurkaria kontraerasoan gaitzitzeko asmotan jauzi ziren kantxara tolosarrak.

Partida oso taktikoa suertatu zen, bi taldeek erasoan gutxi arrisgatuagatik, tolosarrek lortu zuten aurrea hartzea markagailuan Murgik «kontraeraso eder baten ondoren» baloia sareetara bidali baitzuten. Elorriokoek jarraian jokuaren pisua hartu zuten, «baina aukera garbiegirik egin gabe». Atsedendiko ordutan, beraz, 1-0koa markagailuan, etxekoan alde.

Bigarren zatian aukera gehiago izan ziren bi ateetan, baina kanpotarrek asmatu zuten Domentxeren atea zulatzen gol eder bati esker bedinketa ezarri. 1-1 eko berdinketa, beraz, eta puntu banaketa areto futboleko ohikoa ez den emaitza honek islatzen duen legez.

Azken bi partiduetan 4 puntu garrantzitsu eskuratu ditu taldeak, eta» denboraldian zehar jasandako une latzak pixkanaka gaitzitzen» ari dela dirudien arren, gelditzen diren zazpi partiduetan maila eta jokua hobetzen saiatu behar dira Egizabalen mutilak sailkapenean ahalik eta postu gorenera erdiesteko.

## VILLABONA ▶ GAZTERIA



## Haurrek eta gazteek hartu zuten parte Onddok antolatutako marrazketa saioetan

I. Garcia ▶ Villabonako Onddo Gazte Asanbladak antolatuta, marrazketaren inguruan bi ekitaldi burutu ziren pasatu den larunbatean. Alde batetik marrazketa tailerra egin zuten Txistulari plazara joan ziren haurrek. Panel batzuen gainean koloreak nahasten aritu ziren bertan bildutako 60 parte-hartzaile inguruk —ezkerreko argazkian—. Onddokoek oinarriko koloreen inguruan informazioa eman zieten eta baita

hauek nahastuta beste koloreak nola lortzen diren ere. Kolore beroak eta hotzak zeintzuk ziren ere azaldu zieten tailerren parte hartutakoei. Bestalde, Gaztetxean, Herri Olinpiaden bigarren saioa burutu zuten. Marrazketa proba zen eginbeharrekoa eta horretarako Gaztetxearen hormak margotu zituzten. Talde bakoitzari gai bat egokitu zitzaion eta hortik abiatuta apaindu zuten Gaztetxeo kanpoaldea. HITZA

## ANOETA ▶ GAZTERIA

# Eskualdeko Gazte Olinpiadak egingo dituzte etzi plazan

Herrietan taldeak osatzen ari dira eta jokoak larunbat arratsean egingo dira; irabazleak eskualdea ordezkatzeko du

## ERREDAKZIOA

Gazte Topaguneak antolatuta, Euskal Herriko eskualde ezberdinetan Gazte Olinpiadak egiten ari dira. Tolosaldekoa etzi egingo da, Anoetako plazan. Antolatzailerak azaldu dutenez, «dagoeneko herrietan ari dira taldeak osatzen, bai jokalariak izango direnak eta, nola ez, haien jarraitzaileak.

Izan ere, zeresan handia izango dute jarraitzaileek Gazte Olinpiada hauetan».

16:00etan ekingo diete jokoei. Hauetan irabazle suertatzen dena eskualdea ordezkatzeko du hurrengo egunetan egingo diren herrialdeko Gazte Olinpiadetan.

Hala ere, eguna ez da horretan amaituko, Gazte Olinpiadak amaitu ostean Anoetako kaleetatik barrena triki-poteoa egingo baitute eta ondoren herriko Gaztetxean afaria egongo da parte-hartzaile guztientzat. Gaua amaitu aurretik berriro Gaztetxean kontzertua izango da, Naizroxa eta Neü taldeekin. Esan bezala, taldeak osatzen

ari dira jadanik: Ibarra, Villabonan, Anoetan, Tolosan eta Amezketan, esaterako.

## Txoko guztietara

Gazte Olinpiaden helburua Gazte Topagunearen filosofia herriz herri Euskal Herriko txoko guztietara zabaltzea da, antolatzaileran esanetan. «Gazte Topagunean egiten duguna ez da lau egunetako ekimenera mugatzen, hori behin baino gehiagotan azpimarratu izan dugu. Gazte Olinpiadak dira besteen artean horren erakusle. Topagunea ospatu baino hilabete arinago hasiko baikara, Gazte Topagunearen eredu Euskal Herriko zonalde guztietara zabaltzen».

Bide batez, Gazte Topagunearen «benetako dimentsioa errealitate hurbilenetara ekarri eta horren ingurura atxikimendua eragiteko tresna izango dira Gazte Olinpiadak», azaldu dute.

## ANOETA ▶

## Greba egunari buruzko «oso balantze positiboa»

Ezker abertzaleak herritarrak «zoriondu eta eskertu» ditu izandako jarrerarengatik

## ERREDAKZIOA

Anoetako ezker abertzaleak «oso balantze positiboa egiten du herriak izan zuen jarreraren inguruan», martxoaren 9an deituriko greba orokorra eta mobilizazio egunean, prentsa-ohar batean azaldu duenez. «Greba eta mobilizazio egun honek, salaketa soilaz gain, irekitzeaz dagoen bake prozesuari herritarrek bere babesa emateko aukera

izatea ere bazuen helburu», gaineratu dute.

Bide batez, herritarrak «zoriondu eta eskertu» nahi dituzte: «Izan duzuen jarreragatik, eta aurrerantzean ere izango diren ekimen eta deialdietan parte hartzeko deia luzatzen dizuegu, guztion esku egongo baita irekitzeaz dagoen prozesu honek, herritarren erabaki eskubidean oinarrituz, benetako bake eta demokraziara eramatea».

## IRURA ▶

## Zuhaitz Eguna Ibaigain pasealekuan

Anoetako Udalak Zuhaitz Eguna antolatu du etzira. Aurreko urtean bezala, Ibaigain pasealekuan egingo dute hitzordua zuhaitzak landatzeko, eta deialdia bereziki herriko haurrei luzatu diete. 16:30ean elkartuko dira eta landaketak amaitu eta gero merienda bat antolatuko dute herriko plazan.

## ALEGIA ▶

## Tutorearen bisita izango dute gaur KZgunean

Alegiako KZgunean tutorearen bisita izango dute gaur. 16:00etatik 20:00etara egongo da bertan eta *Itzultzaileak* izeneko mintegia emango du. Ordubeteko izango da saioa, 17:00etatik 18:00etara, hain zuzen ere. Hurrengo bisita datorren hilera arte ez dela izango azaldu dute KZguneko arduradunek.

## ERIZAINA

ZESTOAKO SAN JUAN  
EGOITZAK ERIZAINA  
BEHAR DU

## Eskaintzen da:

· 8 hilabeteko lanaldia.

## Eskatzen da:

· Euskararen ezagutza.

· B1 gida baimena.

· Inguruko izatea baloratuko da.

943 147 019

Neska bat  
behar da Tolosan  
goizez etxeko lanak  
eta 2 haur zaintzeko

Tel.: 605 72 42 73

## BIDEGOIAN ▶ POLITIKA

## Jabier Gordo presoaren sendiak bere «kexua» agertu du Udalak ez diolako laguntza ekonomikorik eman

Udalaren esanetan, Jabier Gordo «ez da sekula Bidegoian erroldaturik egon»

N. URBIZU

Jabier Gordo euskal presoaren familia «kexu» da Bidegoiango udaletxearekin. Bere anaia Pedro Gordoren esanetan, Udalak ez dio laguntza ekonomikorik eman.

Jabier Gordok iazko abenduaz geroztik dago preso, Navalcarneroeko espetxean (Madrid). Pedro Gordok Bidegoiango alkate Juan Ugarterengana jo zuen, anaia presoari bisitak egitera joateko familiarentzat laguntza ekonomikoa eskatuz. Modu honetara, presoaren familia asteroko bisitak «eramangarriagoak» egingen lituz-

ke. Gordoren esanetan, alkatearen erantzuna, «gaia ikasiko zuela» izan zen. «Erantzunik egon ez» zenez, Gordok udaltxera deitu egin zuen erabakiaren berri jakiteko. «Erantzuna zinegotziek ezezkoa esan zutela izan zen», adierazi dio HITZARI.

«Horren aurrean, alkateak aipatutakoa beste irtenbide bat bilatzearena izan zen: agian, gizarte laguntzailearen bitartez laguntza motaren bat lortu zitekeela. Ondorioz, denbora bat eman ostean, eta berriro ere erantzunik ez nuela jasotzen ikusirik, deitu egin nuen. Erantzuna orduan ere

ezezkoa izan zen, ez zegoela inolako laguntzarik eskuratzerik». Alkateari azalpenak eskatu zizkion Gordok, eta hark azaldutakoaren arabera, «erantzuna preso ez dela inoiz Bidegoian erroldaturik egon izan zen». Sendiaren esanetan, Jabier Gordok egun batzuk eman ditu erroldaturik herrian. Familiak azpimarratu duenez, «ez da presoari eman beharreko laguntza, haren familiari baiziki».

### Udalaren erantzuna

Juan Ugarte Bidegoiango alkateak HITZARI adierazitakoaren

arabera, «Jabier Gordo ez da inoiz Bidegoian erroldaturik egon». Herrikoa ez denari ez zaiola laguntzarik ematen esan du, «nahiz eta familia bertakoa izan, duela 17 urte». Presoaren familiak haietzako laguntza dela «behin eta berriro» esan arren, alkateak ez du hori presoari berari emateko laguntzatik bereizten.

Udalak, bere aldetik, bi irizpide ditu kontuan: preso horriko izatea, eta herrian erroldaturik egotea. «Ez dute inolako eskaera ofizialik jaso, ezta egin ere», gaineratu dute. Hala, baldintza horiek betetzen ez direnez, Udalak ez du kasu ho-



Jabier Gordo. HITZA

netan laguntza eman behar duenik ikusten. «Herriko beste preso bat ere bada, eta ez zaio inoiz laguntza ekonomikorik eman», baina herrikoa da, eta bestelako laguntzak eman izan zaizkio, hala nola, oinetakoak erosteko edo arropa berritzeko».

## PILOTA ▶

## Aurrera-Saiazek ere agur esan dio Berria Txapelketari

Lemoa talde indartsuak egin du aurrera, laurdeneko finalerara iritsi ostean



Aurreko bi urteetan ere jokatu dute Aurrera-Saiazekoek. Duela 2 urte, finalaurrekoetan galdu zuten. HITZA

NEREA URBIZU

Aurrera-Saiazek ez zuen zorte onik izan Berria Txapelketako final-laurdenetako partidetan: Bizkaiko Lemoa taldearen aurka galdu egin zuen, tanto kopurua altua izan arren.

Lemoakoek bi partida irabazi zituzten, eta galdutakoa 21 tantorekin egin zuten: 65 puntu lortu zituzten, beraz. Aurrera Saiazekoek 55: ez die balio izan, nahiz eta puntu asko izan.

Kadeteen artean Arresek eta Martin bizkaitarrek irabazi zu-

ten, Oiartzabal eta Agiriano Aurrera-Saiazekoen kontra. 18 tanto lortu zituzten, eta partida oso gogorra izan zen, «izugarria», adituen arabera. Ordu eta erdiz aritu ziren jokatzeko.

Jubenilek irabaztea lortu zuten: Telletxeak eta Galarragak

garaipena lortu zuten eroso irabazi beharreko partidari, baina 22-21 amaituz azkenean. Larri, beraz, baina irabazita. Lemoako atzelariak oso joko ona erakutsi zuen, eta egindako guztia ongi egin zuen.

Nagusietan, Belloso-Oteizak 15 tanto lortu zituzten Erauskin anaien kontra, norgehiagoka ederra eskainiz, biek ere. Hala ere, ez zuten haien maila ona osotara erakutsi, eta Lemoako oso ongi jokatu zuen.

Luis Galarraga Aurrera-Saiazeko delegatuaren hitzetan, «Lemoakoei gauzak ondo atera zitzaizkien eta, zalantzarik gabe, Berria Txapelketako fa-

borito oso garrantzitsua dela iruditzen zait: indartsu daude».

Gauzak horrela, Zugarralde, Lemoa, Txaruta eta Erreka dira finalerdia jokatu dutenak. Zugarralde taldea Lemoaren aurka ariko da datorren larunbatean, eta Txaruta Errekarekin, igandean. Azken partida honetan nafarrak dira jokoan, Baztan-Malerreka eta Doneztebekoak, hain zuzen ere.

### Beste txapelketak

Aurrera-Saiazek Berria Txapelketa polita egin du: agur esan dio, baina ez da burumakur joaten, final-laurdenetara iritsi baita.

HITZA Txapelketari begira jarriko da jada, GRAVN Txapelketaz gain: aurreko asteburuan Arabakoek kontra binakako partida guziak garaitu eta banakakoak galdu ondoren, hurrengo asteburuan, hilaren 25 eta 26an, Bizkaikoek kontra izanen dute, Bizkaian.

### TOLOSALDEKO HITZA.INFO

**Eztabaida.** ETA-ren su-etena dela-eta bake prozesua gertuago ikusten al duzu? Erantzuna emango al du gobernua? Zer aldatuko da? Sar zaituz gure webgunean eta eman zure ikuspuntua eta erantzuna, eztabaida sortzeko aukerarekin.

### iragarki laburrak ▶

#### SALGAI

**Behorra.** Gainean ibiltzeko hamar urteko behorra hamar urteko behorra salgai, beharrezko guztiarekin. Interesatu deitu 609 44 25 09 telefonora.

#### ALOKERA

**Garajea.** Garaje itxia alokatzen da Iruran. Deitu hurrengo telefonora: 646 48 76 01.

XABI FERNANDEZ ▶ BELA

# «Munduko Bira utzi eta Pekingo Olinpiar Jokoei begira nago orain»

Volvo Ocean Race Munduko Birako Movistar ontziko kideak Brasilen utzita, 49er denboraldiari ekingo dio Xabi Fernandez ibartarrak

IÑIGO TERRADILLOS

2004ko abenduaren 31n ekin zion Xabi Fernandezek (Ibarra, 1976) Volvo Ocean Race Munduko Bira probaren abenturari. Lehen hilabeteak prestatzen eman zituen, eta azken bost hilabeteak Movistar ontziaren gainean eman ditu. Ontzi horretatik jaitsi, eta txikiago batekin ariko da orain, 49er modalitatearekin, hain zuzen ere. Bere herrian egin duen egonaldia laburra baliatu du HITZAK Fernandezekin Munduko Biraz aritzeko eta proiektu berriez solas egiteko.

**Rio de Janeiron (Brasil) utzi dituzue Movistar ontziko kideak. Pena sentituko duzu, noski.**

Bai, baina proba hasi aurretik hala egitea erabaki nuen, Munduko Txapelketa eta Pekineko Olinpiar Jokoa prestatu behar baititut, eta aukera hori ezin dut galtzen utzi. Izan ere, Olinpiar Jokoetan parte hartzeko ez dut aukera gehiegirik izango, gehienera hurrengo bietan, eta Munduko Bira hor egongo da gero ere. Horregatik, pena handiarekin izan bada ere, ontzia utzi beharra izan dut.

**Zure lehendabiziko Munduko Bira izan da. Zer moduzko esperientzia?**

Esperientzia oso ona izan da. Izan ditudan taldekideek maila handia dute eta eskarmentu handia gisa honetako probetan, beraz, asko ikasi dut haiengandik. Hemendik lau urtera ere antolatuko dute beste Munduko Bira bat, eta noski, bertan parte hartzea asko gustatuko litzaidake. Ea posible den.

**Ontzian egin dituzun bost hi-**



I. TERRADILLOS

**labeteetan makina bat arazo izan dituzue, eta oso larriren bat ere bai.**

Munduko Bira hasi aurretik, Australiatik Espainiara egin genuen ontziarekin inongo arazorik gabe; baina probarekin bezain laster, hau da, Vigotik Hegoafrikarako lehendabiziko etapari, lehenengo gauean, ontziaren egitura hondatu zen, eta ezin izan genuen amaitu. Une gogorrena, hala ere, Zeelanda Berritik Brasilera

bitarteko etapari igaro genuen, ontzian ura belauneraino sartu zitzaigunean. Ontziak prestatuta daude arazo hauei aurre egiteko, baina argirik gabe, argindarririk gabe geratu ginen, eta denbora luzez ezin izan genituen bonbak martxan jarri. Zorionez, konpondu, martxan jarri eta ura atera genuen. Une gogorak izan ziren, eta okerre-na pentsatu genuen, ontzia hondoratuko zela, alegia. Gainera, une txar hauek guztiak

gauez izan ditugu; beraz, asko zailtzen da dena.

**Zorte txarra bai, baina emaitza onak ere izan dituzue.**

Zeelanda Berrira eginiko etapari irabazi egin genuen. Bigarrena, harrigarria bada ere, 9 segundora iritsi zen. Bestalde, 24 orduko errekorra ere egin dugua, ia 1.000 kilometro egin baikenituen. Une honetan laugarren postuan gaude, baina bigarren amaitzea posible dela ikusten dut. Lehendabizikoari aurrea

## MUNDUKO BIRA

«Munduko Bira hor izango dut gero ere, baina Olinpiar Jokoean beste bi aldiz parte hartu ahal izango dut»

## ZAILTASUNAK

«Une gogorak bizitu genituen, eta okerre-na pentsatu genuen, ontzia hondoratuko zela, alegia»

## ZALETUAK

«Herrira etortzean nire egoeraz galdetu eta animoak ematen dizkide; asko eskertzen da hori»

hartzea, berriz, oso zaila izango dela iruditzen zait, lan ona egiten ari baitira.

**49er-arekin hasiko bazarete ere, ez duzue erabat utzi Munduko Bira.**

Etaparen baterako Ikerren (Martinez) edota nire beharra badute itzuli egingo gineteke, baina bestela buru-belarri jarriko gara Pekingo Olinpiar Jokoa prestatzen. Gaur bertan Santanderren hasiko gara gure entrenamenduekin.

**Eskualdeko herritar asko gertutik jarraitzen dute zure ibilaldia. Zer sentitzen duzu?**

Asko jarraitzen dute, eta bada-kizkitez ontzi gainean lortzen ditugun emaitzak, bai eta matxurak direla eta izan ditugun une txarrak ere. Herrira etortzean, gerturatu eta galdetu egiten dizute zer moduz zauden, eta animoak ematen dizkizute. Poztekoa da, eta asko eskertzen da. **Herrira egiten dituzun bisitak, baina oso motzak dira.**

Bai, motzegiak, baina kirol hau horrelakoa da. Pentsa, hainbat hilabete kanpoan egin eta gero, lau egun baino ez ditut egin etxean, eta berriz ere lanari ekitera, itsasora.

## hilberria ▶

**Joxe Aldalur**

(Begoña gure hautetsiaren aita)

*Adiskide kuttun, lagun zorigabe  
azpildu-gabeko biotzaren jabe,  
onerako zabal, ederrak su-bera;  
hatorkit, Joxe, gaur oroimenera!*

Lizardi

Tolosa Bizirik

TOLOSA, 2006ko martxoaren 23a

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

**Gipuzkoan 50.000 etxetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**

19:00ak arte hartzen dira

Tel.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo

## LEITZA ▶ ERAKUSKETA



**Bertsolari lagunak.** Manuel Lasartek 42 urte egin izan ditu Euskal Herriko herrietako plazaz plaza bertso kantari, 17 urterekin hasita. *Uztapide*-ren jarraitzaile zen eta gerora harekin 27 urtean ibili zen kantari, urteko ia 100 saio elkarrekin egin. Oraindik ere bere kuttunen artean aitatzen du Lasartek. JAIONE ASTIBIA



**Idazlea.** Bertsolari modura da ezaguna, baina bere bizitzan 8 liburu ere argitaratu ditu: 3 bertsozkoak, besteak hitz lauzkoak —azkenekoa iazko urrian—. Pasadizoak, gertaerak, kirolariak... ditu idazgai. J. A.



**Oroigarriak.** 1949an Zarautzen egindako Lenbiziko Bertsolari Txapelketako kopa, eta Txillidak bere etxera eraman zion oparia. J. A.



**Ikusleak.** Lasarteren bizitzako pasarteak irakurri, irudiak ikusi, bertsoak kantatu... Leitzako nahiz Aresoko ikasleak —irudian— bisitari izan dira. J. A.



**Sormena.** Lasartek gai askori buruz egin ditu bertsoak, bai plazarik plaza ibili denean, noski, baina baita idatziz ere: bakea, natura, euskara, Euskal Herria, sehaska... Irudian, bere bilobarri egina. J. A.

# Ezagutzea merezi duen laguna eta lana

Manuel Lasarteri buruzko erakusketak azken egunak ditu

JAIONE ASTIBIA

Baditu jada bi aste ikusgai da goena. Leitzako udaletxeko batzar aretoan, *Manuel Lasarte: bizitza eta sorkuntza* erakusketak. Ikusi ez duena oraindik garaiz dabil, heldu den igandean du-eta azken eguna.

«Lehendik ezagutu dutenentzat oroigarri eta gazteagoentzat erakusgarri» jarri dute lan honekin, Lasarteren «gizon osoa» izatea, erakusketaren egileek, hots, Julian Belokik, Iñaki Zubizarretak eta Iñaki

Hernandezek. Eta horretarako, Lasartek berak idatzitako 8 liburutan argitaratutakoaz baliatu dira: bertsoak 3 eta gainerakoak prosaz eginak dituelarik, horietan azaltzen diren testuz, bertsoz nahiz irudiz jositako daude erakusketak osatzen duten 6 panelak; bakoitza, bertsolari honen bizitzako arlo bati dagokiona: bizitza; eskola, lana eta osasuna; bertsolari lagunak; plaza gizona; sormena; omenaldiak.

Bestalde, ikus-entzunezko formatuan, osagarri apartak

eskuragarri daude, aldi berean. 1981. urtean Juanjo Franki baserrian, Leitzako jaiotetxean, Lasarterekin berekin egin zuen pelikula proiektatzen dute batetik; eta bera ezagutu, berarekin bertsoan aritu, bere jarraitzaile edo lagun diren hainbaten eta Lasarteren berearen testigantza ez ezik, nonahi egindako bertso saio atalak jasota dituen dokumentala, bestetik.

1927an Leitzako Franki baserrian jaio eta bizimodu gogorra eramandakoa eta suertatu-

tako gizona da Lasarte. Beti osasunez patural, lanbidez errementari, familia bakardadean hazitakoa, horren guztiaren eraginez berez serio eta goibel itxura duela, hala ere plaza gizona izana da eta bada, oraindik ere, lehengo martxoaren 5ean jaso zuen omenaldian erakutsi zuenez.

Umore finekoa, bere bertso-gintzan azpimarratzekoa da, bertsoan, esaldi borobilak osatuz, hitzen joskerak batere behartu gabe egiten zuela, errima zuzenekin, eta kantakeraz ere, doinuei bere ikutua emanez. Bertsoarako izan duen «egokitasuna» da bere ezaugarriarik azpimarragarriena.

Erakusketara joaten denak hori frogatzeko modua ere badu, Lasartek sortutako milaka bertsoatik aukeraketa egin eta entzungai baitaude, zuzeneko saioetatik, bere ahotsean.

## MANUEL LASARTE ▶ ERAKUSKETA



Manuel Lasarte. HITZA

**Izenburua.** Manuel Lasarte: bizitza eta sorkuntza.

**Egileak.** Julian Beloki, Iñaki Zubizarreta eta Iñaki Hernandez.

**Lekua.** Leitzako udaletxeko batzar aretoa.

**Ordutegia.** Asteregunez: 18:00etatik 20:00etara; igandetan: 12:00etatik 14:00etara.

**Zabalik.** Hilaren 25a arte.

Harpidedunei banatua ▶ 2006ko martxoaren 23a, osteguna ▶ IV. urtea

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

13

hotzena

10

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA ARALARREN

Guardetxe:

gaur: ez / bihar: ez

Pagomari:

gaur: ez / bihar: ez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA

(zalantzak argitzeko, harpidedun egileko...)

943 30 43 46

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Leitza.** Benidormera irteera antolatuta du Arkupeak jubilatutako elkarrekin, maiatzaren 10etik 24ra bitartean, 460 eurotan. Izen-ematea, elkartean.  
**Lizartza.** Eskolaren XVII. Astearen baitan, 14:30ean, Berastegiko eta Berrobiko lagunena bisita jasoko dute lizartzarrek. 19:30ean, afari-merienda.  
**Tolosa.** Laskorain Ikastolan 2004-05 ikasturtean DBH bukatu zuten ikasleek titulua jaso dezakete ikastolako idazkaritzan, Usabalen.  
**Tolosa.** Kultur Astea Hirukide ikastetxean. Gaur: euskal jolasak, irratsaioak, antzerkia, bertsoak...  
**Zizurkil.** LH 1, 2, 3 eta 4ko ikasleek eskutik kantu, dantza eta txiste emanaldia. 16:00etan, Pedro Mari Otaño ikastetxean. Euskararen Astearen baitan.

**HITZALDIAK**

**Lizartza.** Orain herria, orain bakea. 20:00etan, udaletxean.  
**Tolosa.** Orain herria, orain bakea. 20:00etan, Kultur Etxean.

**ZINEMA**

**Tolosa.** Fred Zinnemann zuzendariaren *Solo ante el peligro*. 21:30, Kultur Etxean, ostegunero zine-klubean.  
**Tolosa.** *La marxa* filma. Bihar, 19:30ean, Kultur Etxean. Arrazakeriaren Aurkako Astearen, SOS Arrazakeriak-ek antolatuta.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Plaza, M. Elbarren, 36. 112.  
**Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 38 49.

**IRRATIA**

**Txolarre irrati (107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia, Joxe Landarekin, agenda, HITZaren errepasoak, albisteak, elkarrizketak, disko eskainiak...  
 21:00-22:00. *Gora Euscadi Txistulari*.  
 22:00-23:00. *Gau bero* musika saioa.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

# Ekitaldi andana eskoletan

**TOLOSALDEA ▶** Zizurkilgo Pedro Mari Otaño eskolan, Tolosako Hirukide ikastetxean eta Lizartzako eskolan ekitaldi bereziak egiten ari dira aste honetan

**ERREDAKZIOA**

**E**skualdeko hiru ikastetxeetan ekitaldi bereziak antolatzen ari dira egunotan. Lizartzan, Eskolaren Astea egiten ari dira. Zizurkilgo Pedro Mari Otaño eskolan, lehenengo Euskara Astea burutzen ari dira. Tolosako Hirukiden, berriz, Kultur Astearen sartuta daude buru-belarri.  
 Bizikleta martxa egin zuten atzo Lizartzan helduek Nafarroako mugaraino. Hiru kilometro inguruko ibilbidea egin zuten. Bitartean, gaztetxoek antzar joko berezian aritu ziren jolasean bizikleta gainean. Arratsaldean, pilotalekuan bildu ziren ikasleak zein gurasoak afari-merienda egiteko. Gaur bisita berezia izango dute ikasleek. Izan ere, Berrobiko eta Berastegiko lagunak joango zaizkie eurekin goiza pasatzeko asmoz.  
 Herenegun bezala, atzokoan bertsoetan aritu ziren Hirukide



Lizartzako eskolako ikasleak, bizikleta gainean. I. TERRADILLOS

ikastetxean. Horrez gain, poesia emanaldia, ipuin kontalarien saioa, abesti banaketa eta Xabil maskotaren aurkezpen saioa ere izan zuten. Gaur, euskal jolasak, irratsaio bereziak, antzerkiak eta kantauk izango dituzte, besteak beste.  
 Otaño eskolan Andoni Egaña bertsolariaren bisita izan zuten. Ikastetxeko *Uhinez uhin* irratsaioarako elkarriketa egiteko aprobetxatu zuten Egañaren presentzia. Saio oso atsegina izan dela azaldu dute eskolakoei, eta bertsolariaren gertutasuna azpimarratu dute. Haur Hezkuntzakoek antzerkia eskaini zuten, *Naturari eraso* izenekoa, eta gizakiak ingurumenean egin ditzakeen hondamendiak irudikatu zituzten. Gaurko egitarauan, Nerea Alias telebista aurkezle anoetarren bisita izango dute. Ikasleek mamutei buruzko hitzaldia eta kantu, dantza eta txiste emanaldia eskainiko dute.



Zizurkilgo Pedro Mari Otaño eskolan Egañaren bisita jaso zuten. HITZA



Tolosako Hirukiden, 5. mailakoak bertsoak abesten. HITZA

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
**Maialen Gastiarrena.**  
 7 urte. Zorionak aita, ama eta Arkaizen partetik.

**URTE ASKOAN**  
**Mattin Adurriaga Aizpurua (Txarama).**  
 6 urte. Zorionak.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.**

- ▶ HITZaren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZaren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

**hitza**  
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...